

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako unibertsitateen uda-ikastaroen prestakuntzako 27 ekintza eskaintzen dituzte aurten

Ekainetik irailera egingo dira Lizarran, Mutiloan, Erriberrin, Iruñean eta Tuteran

Viernes, 31 de mayo de 2013

Nafarroako

unibertsitateen uda-ikastaroen 13. edizioak prestakuntzako 27 ekintza eskaintzen ditu guztira ekainetik irailera arte, eta hainbat gairi buruzkoak izango dira: artea, antzerki klasikoa, cibersegurtasuna eta delinkuentzia Interneten, enplegua bilatzeko trebeziak eta enpresa baten sorrera, bai eta krisiak zer eragin duen gazteengan, robotikan, giza genoman eta Palestinako giza eskubideetan.



Eskuinetik ezkerrera: Fernández, Lostao, Alonso, Iribas kontseilaria, Ramírez eta Martín Nogales, uda-ikastaroen aurkezpenean.

Programa antolatu dute, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP), Nafarroako Unibertsitateak (NU), Iruñeko nahiz Tuterako UHUNen zentro kideek, Nafarroako Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin batera. Programa datorren asteazkenean, ekainak 5, hasiko da "Lana eta familia, gure buruan jabe gara ala esklaboak?" irekitze-ekitaldiarekin, eta gai horren inguruan IESEko lana eta familiaren nazioarteko zentroko zuzendari Nuria Chinchilla ariko da, Iruñeko Condestable Jauregian.

Eskaintza Iruñean garatuko da bereziki, baina beste prestakuntza-ekintza batzuk ere barnean hartzen ditu Lizarran, Mutiloan (Aranguren), Erriberrin eta Tuteran.

Programa gaur aurkeztu du prentsaurrekoan Hezkuntza kontseilari José Iribasek; Iruñeko Udalaren Hezkuntza eta Kultura zinegotzi-ordezkarri Fermín Alonsok; eta antolatzaile diren unibertsitateetako ordezkariak: NUPen Unibertsitate Proiektzioko erretoreorde Eloisa Ramírez eta

NUko Nazioarteko Harremanetako erretoreorde María Pilar Lostao, eta Iruñeko UHUNeko egoitzen zuzendari José Luis Martín Nogales eta Tuterako Luis J. Fernández.

Antolaketan ere lagundu dute: Nafarroako Erdialdeko Garapen Partzuergoak, Nafarroako Ateneoak, ESIC Navarrak, Slovak Institute of Technology institutuak, Alcalá de Henaresko unibertsitateak, Herritarren Unesco Katedrak, Convivencia y Pluralismo-k, Sodepaz-ek, Henri Lenaerts fundazioak eta Foru Gobernuako zenbait unitate eta programak, esaterako: Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia, Navarrabiomed-Miguel Servet fundazioak, Lizarrako Antzinako Musika Asteak, Nafarroako Dantza Eskolak eta Navarra en Danza-k.

Udako ikastaroak, unibertsitateen arabera

Nafarroako unibertsitateen uda-ikastaroen 13. edizioaren barnean dauden 27 ekintzen artetik, hamahiru NUPak antolatu ditu, bost Iruña eta Tuterako UHUNen kide diren zentroek eta lau NUak.

[Nafarroako Unibertsitate Publikoak](#) (NUP) ondorengo ikastaroak antolatu ditu: "Navarra en danza 2013. Dantza Eszenaren Jaialdia. Dantza Neoklasikoaren ikastaroa Lode Devosekin", eta ekainaren 18tik 21era egingo da; "7th International Summer School on Aggregation Operators-AGOP 2013", uztailaren 16tik 19ra; "Lehen mailako arreta 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat", uztailaren 22 eta 23an; "Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia. Eszenako sorkuntza dramatikoaren tailerra", uztailaren 22tik 28ra; "BYOB/SNAP hezkuntza-robotika eta programazioko nazioarteko campusa", 19tik 30era eta abuztuaren 26tik 30era; "Genomika eta proteomikaren aroa", abuztuaren 26tik 30era; eta "Ekonomia eta kultura. Kultura eta finantzaketa", abuztuaren 28tik 30era.

Irailerako prestakuntzako beste sei ekintza programatu ditu: "Bizkarreko eta pelbis-zoruko lesioen prebentzioa zamak erabiltzeko orduan", irailaren 2tik 6ra; "Nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideak: Palestinan legeak betetzeko aukerak", irailaren 4 eta 5ean; "Gazteak eta herritarrak. Krisiaren belaunaldi arteko irakurketa baterantz", irailaren 4tik 6ra; "Katedralen magia", irailaren 9tik 12ra; "Ondarea eskutan", irailaren 10etik 12ra; eta "Antzinako musikaren interpretazioa; biolina eta biolontxelo, Lizarrako Antzinako Musikaren 44. Astea", irailaren 13, 16 eta 17an.

Bestalde, [Nafarroako Unibertsitateak](#) (NU) ondorengo ikastaroak antolatu ditu: "Antzerki Klasikoaren Nafarroako II. Jardunaldiak. Asmamen komikoak: Lope, Tirso eta Calderónen komediak", uztailaren 28 eta 30ean; "Zuzendaritzako eskumenen garapena eta hezkuntzako buruzagitzak: erabakiak hartzea", abuztuaren 29 eta 30ean; "Nola sortu pentsamenduko kulturak eta lankidetzak ikasgelan?", irailaren 3 eta 4an; eta "El Grecoren IV. mendeurrenaren aurrean: artea Nafarroan El Grecoren garaian", irailaren 3tik 5era.

[Iruñeko UHUN](#)ek prestakuntzako bost ekintza prestatu ditu: "Ibilbide historikoa Errege Jauregitik (Erriberrikoa) bertako pertsonaien bidez", uztailaren 18 eta 19rako; "Pertsonaien karakterizazioa eta eszenografia ezagutzea 'El nombre de la rosa'-n", uztailaren 20an; "Erreinu baten mugak", uztailaren 30etik abuztuaren 2ra; "Zoritxarra gizatiartzen", irailaren 9tik 12ra; eta "Cibersegurtasuna eta delinkuentzia: teknologia berriak eta aukera kriminala", irailaren 16tik 18ra.



Ikastaroen kartela.

Azkenik, [Tuterako UHUN](#)ek beste bost ekintza antolatu ditu: "Masterclass: enpresaren lehiakortasunaren funtsezko marketina", irailaren 12an; "Marketin pertsonala. Enplegua bilatzeko trebeziak", bi saio izango dituena, bata Mutiloan (Aranguren) eta bestea Tuteran, irailaren 17an; "Nire enpresa sortu nahi dut, nondik hasi?", irailaren 18an; eta "Masterclass: nola garatu internal branding-eko politika era holistiko batean", irailaren 19an.